

KANTARI BIZI NAIZ

Biziak badu bere alderdi alai. Jaunak ez gaitu egin beera begira, sarats- gaillenak bezela, negarrari ekiteko, lan artean ere pozaren ederra erakusteko baizik. Orreri nakio ni, al dudanean kantuz ere nere barrenaren egoera adierazi nairik.

Doñu: «Ftxasoan laiño dago...».

Eztarri leun, biotz giar,
goiz eta arrats kantuz nabil;
lan artean laguna dut
nere Jone beti urbil,

Lizar zuta zait dardaraz
biotz espak aditzean,
batak dio besteari
erantzuten poz betean.

Gure kanta da luzatu
iñoiz mendi gaiñeraiño:
«Nik zu zaitut maite-maite,
txoriak bere kumeak baiño».

Bizitza ez da ezer
albistea bada palta:
biotzaren arnas meño
duzu, maite, gure kanta.

Berez zaigu guri sortzen,
naiz alaian, naiz nekean;
etxe-barne, soro lanez,
biok gaude su berean.

Kanta, biotz, kanta zoli?
iñoiz ere aspertzeke:
or oiana abes-maixu,
beti surmur, ez du neke.

Izarrak leun argi dagi
bere ibilli sotillean,
argi, kantu gaitezen gu
alai geure etxaldean.

Orri-loren intzirían
betorkigu biotzari
urte aro guztietan
eiera antzo gu kantari.

GURE UMEAK

Guraso izateak badu zorionik. Senar-emazteon biotzak aurrak lotu oi dituzte korapillo maitekorrez. Guk iru dauzkagu: Mikel, bederatzi urtekoa, bizkor ta zoli, eskolara dabil; Jontxu, bostekoa, begi-ñarñar ta ille gorri, oraindik seaska eder zaiona. Amonak badu irurakin jolasik aski: makiña bat ipuin entzunak dira aiek onen ezpaiñetatik. Eta gu biok maiz egon oi gera, erdi-txoratuak, lauoi begira ta aditzen.

Doiñu: «Jesus maitea zan...».

Basoan eder da kimu txit oraila,
sendian orobat muskil berri sailla;
guk emen dauzkagu iru xima (1) eder,
iru muxu gorri, ta iñor ez alper.

Senar-emazteok onek lotzen gaitu,
maitasuna ere biotzean sutu;
itxarokizuna digute arrotzen,
ta gogotsugo guk lanari ematen.

(1) Bota.